

ZESTOA

Ekainek badu bere sagardoa, ekologikoa

Iruretxiki baserrian egiten dute, 35.000 litro inguru, lagunuen zein familiakoen laguntzarekin

14.07.11 - 02:33 - K. ARRIZABALAGA | ZESTOA

Ibañarrietan ospatu zen 'Ekain' sagardoaren aurkezpen ofiziala, Iruretxiki baserrian. Sagardo ekologikoa dugu hau, Zestoakoa, bertako sagastietako sagarrekin era naturalean eta auzolanean (lagunen zein familiakoen laguntzaz) egindakoa.

Orain 20 urte hasi ziren sagarrondoak landatzen Iruretxiki baserrian, eta gaur egun 4,5 hektarea sagasti ditu Aitor Eizmendi sagardogile zestoarrak, guztira 1.600 sagarrondo inguru. Ondorioz, egun 35.000 litro sagardo egiten ditu, prozesu guztia bertan egiten delarik, hau da, sagarrak jaso, prentsatu, barriketan sartu eta azkenean botiletan sartu eta etiketatu.

Hasieratik argi izan zuen Aitor Eizmendik sagardo hau ekologikoa izan behar zuela, ingurunearekiko errespetuz jokatu zuela, eta ondorioz, «lehengo aitona-amonen jakinduria eta egungo aurrerapenak uztartuz» egiten du sagardo hau, ongari edo pestizida kimikorik bota gabe eta genetikoki moldaturiko ezer erabili gabe. Hau horrela dela ziurtatzeko, Euskadiko Nekazari-tza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan daude erregistratuta, honek sagardo honen ekoizpena kontrolatu ahal izateko, eta horrez gain Biolur elkarteko kide ere badira.

Ekain izena jartzearen arrazoiak berriz badu azalpenik. Izan ere, batetik Zestoako sagardoa dugu hau, goitik beheraino, eta bestetik, Aitor Eizmendiren ama, Pastori Aizpurua, Sastarrain baserriko alaba dugu, Ekain kobazulo ondoko baserrikoa, eta nola ez, amaren nahia hau zela ikusita jarri dio 'Ekain' izena sagardoari.

Bertsolari lagunak

Aurkezpenean hainbat lagun eta familiarteko izan zituen Aitorrek ondoan, besteak beste Jon Maia, hau aurkezte lanetan aritu zelarik, Aitor Mendiluze eta Amets Artzallus bertsolari lagunak eta hauez gain urteetan zehar horrenbeste lagundu dioten koadrilako lagunak. Denak batera festa goxoa egin zuten aurkezpenean.

Orain, hemendik aurrera, inguruko herrietako dendetara eta tabernetara sagardo hau zabaltzeko asmoa azaldu dute, zuzenean Iruretxiki baserrian ere saltzen jarraituko duten arren. Informazio gehiago nahi duenak 943-148033 telefonora deitu dezake.

TAGS RELACIONADOS

[ekainek, badu, bere, sagardoa, ekologikoa](#)Para poder comentar debes estar [registrado](#)

ANUNCIOS GOOGLE

Parador de Hondarribia

Parador de Hotel, Hondarribia. Fantásticas tarifas y sin comisión
[TripAdvisor.es/ParadordeHotel](#)

Depósito 4% TAE

Consiga un 4% TAE a 12 meses. Disponibilidad al 6º mes al 3%
[www.oficinadirecta.com/Deposito](#)

Iretza Sagardotegia

Magnífica Sidrería en Astigarraga Menú sidrería, carta. Todo el año.
[www.iretza.com](#)

Escanciador Eléctrico

Escancia tu sidra de forma fácil y mucho más sabrosa
[Escanciador.eolo.com](#)



© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª C.I.F.: B20677878
Domicilio social en Camino de Portuebe, 2 San Sebastián 20018
Correo electrónico de contacto contactanos@diariiovasco.com
Copyright © Digital Vasca S.L., San Sebastián., 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

[Contactar](#) | [Mapa Web](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Master El Correo](#)

ENLACES VOCENTO

[ABC.es](#)
[El Correo](#)
[elnortedecastilla.es](#)
[Elcomercio.es](#)
[SUR digital](#)
[Qué.es](#)
[La Voz Digital](#)
[Punto Radio](#)
[hoyCinema](#)
[Infoempleo](#)
[Autocasion](#)

[Hoy Digital](#)
[La Rioja.com](#)
[DiarioVasco.com](#)
[Ideal digital](#)
[Las Provincias](#)
[El Diario Montañés](#)
[Laverdad.es](#)
[Finanzas y planes de](#)
[hoyMotor](#)
[Guía TV](#)
[11870.com](#)